

# LEGE OHARRAK

## GURE WEB TOKIA ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Ongi etorria izan [www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org) izeneko Web orrira. Lehenik eta behin jakin behar duzu tokiaren jabetza intelektuala eta industrialaren eskubideak STEE-EILAS sindikatuak dauzkala. *Euskal Herriko Irakaskuntzako Langileen Sindikatuak* (aurrerantzean STEE-EILAS) ondorengo helbidea du:

*Nicolas Alkorta kalea 3, PK 48003 Bilbo.*

Web orriari buruzko edozertarako hurrengo telefonora jo dezakezu:

944100298

Harremana posta elektronikoaren bidez bideratzeko:

[bizkaia@stee-eilas.org](mailto:bizkaia@stee-eilas.org)

[www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org) informazio eta zerbitzu zabalagoak eskaintzeko asmotan sortu du STEE-EILAS sindikatuak. Hori dela eta bertan agertzen diren elementu guztiez ardura osoa du, baita Web orriaren diseinu eta kudeaketaren inguruan ere. Orrialde honetan agertzen diren datuak informazio-balioa dute soilik, eta baliteke kontsulta egiten denean hauek eguneratuta ez egotea. Beharrezkoak ikusten dituen aldaketa teknikoak egin ahal izango ditu STEE-EILAS sindikatuak kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko. Hala ere ez du bere gain hartzen Web-ean agertzen diren loturen edukietatik sor daitekeen inolako erantzukizunik. STEE-EILAS sindikatuak dauka edozein unetan eta aurretiaz ohartarazi gabe, bere barnean dagoen informazioa nahiz Web-aren konfigurazioa aldatzeko edo deuseztatzeko ahalmena.

Jabetzaren eskubideak direla eta, ezin daiteke Web honetako edukirik aipatu, utzi, argitaratu...baimenik eskatu gabe. Halere kopia pribatuak egitea dago zehaztutako baldintzak errespetatuta. Web orriaren edukiak hemen zehazten diren helburuetatik kanpo erabiliz gero edo helburu horiek aldatuz gero STEE-EILAS sindikatuaren eskubideak urratu egingo dira. Jabego intelektual eta industrialaren eskubideetan sorturiko kalte eta galerek STEE-EILAS sindikatuari legez dagozkion ekimenak hasteko bidea emango diote eta, horrela badagokio, horren ondorioz diren erantzukizunetara.

Web hau erabiltzea doakoa da bai pertsona afiliatuentzat bai afiliatuak ez izan arren gure tokian sartzen direnentzat. Gogoratu behar da, hala ere, gutxieneko tekniko batzuk behar direla erabili ahal izateko:

- Nabigatzailea (hobe PCrako Internet Explorer 5.5)
- Monitoreak gutxienez 800X600 pixel izatea
- Flash plugin (doan deskarga daiteke [www.macromedia.com](http://www.macromedia.com) helbidean)

Bai Web-erako sarrera, bai bertan dagoen informazioaren erabilera, erabiltzaile edo bisitariaren ardurakoak izango dira. STEE-EILAS sindikatuak ez du inolako erantzukizunik izango sartzean edo informazioa erabiltzean sor dezaketen kalteen inguruan. STEE-EILAS sindikatuak ez ditu bermatzen Web orriaren funtzionamenduaren eskuragarritasuna eta jarraipena. Hori ez gertatzeko lanean egongo bagara ere, zerbitzarian edo Web orrian sistemarako kaltegarriak izan daitezken elementuak (birusak edo) egon daiteke.

## **DATU PERTSONALAK ETA PRIBATUTASUNA BABESTEKO JARDUERAK**

STEE-EILAS sindikatuak legezko betebeharrak onartzen ditu datu pertsonalak babesteari buruz, baita datu horiek bere Web orriaren bidez ([www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org)) eskuratzen dituenean ere. Jasotako datuak *Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal* (Abenduak 13koa) delakoaren arabera kudeatuko ditu STEE-EILAS sindikatuak.

Webak ezin du bisitariaren nortasunari buruzko inolako daturik ezagutu, baldin eta, bisitariaren eskabideari erantzuteko helburu zehatzarekin, Web honen orrialdeetan agertzen den formularioren bat bete eta bidaltzen ez bada. Datu pertsonalak eskuratzeko formularioak "KONTAKTATU" eta "AFILIATU" izeneko ataletan eskatu ditzake STEE-EILAS sindikatuak bere Web orriaren bidez. Zehazkiago:

- ✓ KONTAKTATU izeneko atalean posta elektronikoaren bidezko lotura eskaintzen zaio bisitariari, sindikatuarekin harremanetan jartzeko asmoa baldin badu. kontaktu horren bidez STEE-EILAS sindikatuak bisitariaren helbide elektronikoa eskuratuko du erantzun ahal izateko. Datu pertsonal gehiago ematearena (izena, telefonoa...) erabiltzailearen beraren eskuetan geldituko da.
- ✓ AFILIATU izeneko atalean, ezinbestean, datu gehiago eskatuko dira. Zehazkiago honako hauek: izen-abizenak, NAN, telefonoa, helbideak (etxekoa eta elektronikoa) lantokia, lan mota, kontratu mota eta bakuaren datuak. Datu guzti horiek beharrezkoak dira egoitzara jo beharrean Web orriaren bidez afiliatu nahi duen pertsonarentzat.

Gure Web orriaren erabiltzaileak edo bisitariak, formulario betetzean onartu egiten du bere datu pertsonalak STEE-EILAS sindikatuak bere egoitza nagusian (Nicolas Alcorta 3, 48003 Bilbo) dagoen fitxategi automatizatuan erregistratzea. Aldi berean, aurrerantzean eskubidea izango du fitxategi horretan sartu eta, behar izanez gero, datuak zuzendu, baliogabetu edo oposatzeko.

Prozesu osoan zehar erabiltzailea informazio egokia izaten ahaleginduko da STEE-EILAS sindikatua, borondatez eta aske erabaki dezan datuak eman nahi dituen. Web orrian datu pertsonalak eskatzen diren bakoitzean, bisitari edo erabiltzaileari hainbat informazio luzatzeko konpromisoa hartzen du STEE-EILAS sindikatuak:

1. Bere datuak lehen aipatutako fitxategi automatizatuan sartuko direla.
2. Fitxategi hori *Agencia Española de Protección de Datos* delako erakundearen egongo dela erregistratua.
3. Fitxategiaren titularrak eta arduraduna STEE-EILAS sindikatua izango dela eta hurrengo helbidean dagoela kokatuta:  
*Nicolas Alcorta 3, 48003 Bilbo.*

*Telefona: 944100298.*

*Posta elektronikoa: bizkaia@stee-eilas.org*

4. Datuen tratamendu automatizatuaren helburuak honako hauek izango direla: interesatuak egindako galdera eta eskaerei erantzutea, eskatutako informazioa eskatu duenari helaraztea, sindikatuari luzaturiko zalantzak argitzea eta web orriaren bidez afiliatu nahi duenarekin kontaktatzeko beharrezkoak diren datuak eskuratzea. Eskatutako datuak ezinbestekoak dira erabiltzailearekin harremanetan sartzeko berak eskatu duenean.

Ildo berberari jarraiki, **STEE-EILAS** sindikatuak bestelako konpromisoak ere hartzen ditu bisitari/erabiltzailearekin beren datuak eskuratu ondoren:

1. Interesatuak eman ditzaken datu pertsonalak bakar bakarrik dagokion prozedura edo egintzan eta aurreikusitako helburuetarako erabiliko direla.
2. Segurtasuna ziurtatzeko (datu galerak, aldaketak, baimenik gabeko sarrerak, arrisku naturalak, maltzurak...) eta arriskuak saihesteko neurri teknikoak eta antolakuntzari buruzkoak hartuko dituela.
3. Eskuratutako datuak bere lana egiteko (pertsonek afiliatzeko, bidaltzen dizkiguten galdera eta zalantzei erantzuteko) datu horiek behar dituzten sindikatuko langileek baino ez dituztela erabiliko.
4. Datu pertsonal horiek pasahitzaren bidez babestuko direla fitxategi automatizatuan.
5. Datu hauek ez direla tratatuko eta ez direla hirugarren bati pasako doakionaren zalantzarik gabeko baimenarekin edo Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 6.2 eta 11.2 artikuluetan (1999ko abenduaren 14koa) ezarritakoari jarraituz ez bada.
6. Bisitariak edozein momentutan izango ditu sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideak gauzatzeko aukera, arazuz ezartzen denari jarraituz.